

ESANAK

JOSE LUIS MENDOZA
(Euskara Kultur Elkargoa)

«Zer egin behar du orain Gobernuak? Zer kalte-ordain jasoko dute kaltetuak izan direnek?»

JOSE MARIA AIERDI
(EA)

«UPNk ez ezik, PSN eta CDNk ere aukera dute orain nafar gizartearen eskaera eta nahiei men egiteko»

JOSE MIGUEL NUIN
(IU)

«Nafarroako Gobernuarentzat oso atzerapauso larri eta garrantzitsuak dira erabakiak»

MILAGROS RUBIO
(Batzarre)

«Politika egiteko modua bera epaitu da hemen, mamia eta modua: ezin da nahi dena egin»

BATASUNA

«Ez da forma arazoa: euskararen aurka egiten ari diren hizkuntza politika genozida baten arazoaz ari gara»

XABIER MENDIGUREN
(Kontseiluko presidentea)

«Argi dago Nafarroako Gobernuak jarraitutako bidea ez dela egokia izan; euskara bultzatu beharko luke»

dako argudioen arabera, Nafarroako Euskararen Kontseilua sortzeko arrazoen azalpenak irakurrita, ezinbesteko errealtatea da erakunde hau hizkuntza normalizaziorako, eta horri dagozkion arautegi guztiek bere txostena behar dute.

Halaber, epaileen ustetan, administraziorako lanpostuetan aritzeko hizkuntzaren eza gutza merituen artean sartzea bidezkoa da oso eta, beraz, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena ere eskatu behar izan zuen Gobernuak.

FORU DEKRETUAREN EPAIA

«Euskararen erabilerak garrantzi handia du»

Administrazioarekiko Auzietako Salako sei epaileek nabarmendu dute Nafarroako Euskararen Kontseilua oso garrantzitsua dela Nafarroan euskararen normalizazioa lortzeko, horretarako sortu zela eta, beraz, bere txostena ezinbestekoa dela.

«Arrazoen azalpen hori irakurri ondoren, guztiz dudagabea dirudi ezinbestekotzat jo zela Nafarroako Euskararen Kontseilua sortzea hizkuntza normalizaziora lotutako gauza guztietarako, eta nekez lortuko dela hori aipatu erakunde izan gabe. Hala bada, aipatu Foru Dekretuko 4. artikulua dioelarik hizkuntza normalizaziorako plan orokorrak eta arauzko proiektuak onartu baino lehen haien gaineko txostenak ematea dela Nafarroako Euskararen Kontseiluaren zeregin nagusia, ez du ematen egokitasunaren arabera eska daitezkeen edo eskatu gabe utz daitezkeen txostenei buruz ari denik, nahitaezko txostenei buruz baizik. Zentzugabea da bestelako interpretazio bat egitea, alferri-

kakoa delako ezinbestekotzat jotzen den Kontseilu bat sortzea, zeinen lankidetzaz izan gabe nekez lortuko baitira nahi diren helburuak, geroago ez bazaio eskatzen legea garatzeko behar den araudia egiteko txostena; hau da, bere zeregin nagusia betetzeko».

«Hirugarrenik, eta araua aplikatzen den garaiaren errealtate sozialari dagokionez, Salak uste du euskararen erabileraren gaia ez dela garrantzi gutxikoa, eta eragin handia duela Nafarroako gizartearen».

«Nafarroa hizkuntza normalizatzeko prozesu batean dago murgilduta, eta nekez lortuko dira esleituta dituen helburuak ez bada gertatzen, botere publikoen jarduerarekin batera, beste erakunde batzuen inplikazioa eta parte-hartzea. Hain zuzen ere, horretarako sortu zen Nafarroako Euskararen Kontseilua, eta honako zeregin nagusi hau eman zitzaion: hizkuntza normalizaziora lotutako arauzko proiektuen gaineko txostenak ematea proiektuok onartu

baino lehen. Hortik, argi eta garbi ondorioztatzen da txosten hori nahitaezkoa izatea izan zela legegilearen asmoa».

«Hala adierazi du Auzitegi Konstituzionalak: hizkuntza jakitea printzipio horien barruan dago. Horrenbestez, merezimendu eta gaitasun printzipioak berak karga bat ezartzen dio funtzio publiko jakin batean jardun nahi duenari: bete nahi duen funtziorako ezinbestekoak diren gaitasunen, ezagueren eta egokitasunaren jabe dela egiaztatu behar du. Horregatik, zerbitzatu nahi den Administrazioak diharduen lurraldeko hizkuntza ofizialaren eskakizuna arazorik gabe sar daiteke galdegiten diren meritu eta gaitasunen barruan».

«Ondorioz, lehen aipatu dugun erregulazioak funtzio publikoaren funtsezko alderdi bati eragiten dio, garrantzi konstituzionala du, eta, beraz, ezinbestekoa da Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena».

Epaiak berez indarrean uzten du berriro 1994ko Foru Dekretua euskararen erabilera administrazioan arautzeko, baina ez du, automatikoki, orain arte egin diren ekintza guztiak deuseztatzen. Euskara baldintza gisa hartu ez diren lanpostuen kasuan, esaterako, helegitea jarri ez bada ezingo litzateke berez lanpostu horren izendapena baliogabetu. Hemendik aurrerako lanpostu guztiak, hala ere, aurreko dekretuaren irizpideetan oinarritu beharko lirateke.

Galdera Nafarroako Gobernuari eta PSN eta CDNri

Jose Luis Mendoza Euskara Kultur Elkargoko bozeramaileak nabarmendu zuen helegitea erabakitzeko epaileek izan duten prestutasuna —«aho batez erabaki da»—, eta galdera luzatu zion Gobernuari. «Eta hemendik aurrera zer? Zer egin behar du Gobernuak? Ze kalte ordain izango dituzte esaterako lanpostuen deialdietan kaltetuak gertatu direnek?». «Kobazulo batean sartu da Gobernuak», adierazi zuen Mendozak. «Hausnarketa egiteko garaia da, kaltea ez delako bakarrik euskaldunendako izan, nafar guztiendako baizik», gehitu zuen.

Hausnarketa egin beharra ere azpimarratu zuten EA, EAJ, IU eta Batzarre taldeek, eremu euskalduneko ekintza planari jakinarazitako helegitea balortzean. Jose Mari Aierdi EAKo parlamentarioak adierazi zuen Nafarroan errealtatea ulertzeko bi modu daudela, eta hori garbi gelditu dela epaiarekin. «Alde batetik, badira ezberdintasunean eta aniztasunean gi-



LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

EA, EAJ, IU eta Batzarreko kideek goizean egin zuten balorazioa.

ETORKIZUNA

Eta orain zer?

Nahiz atzo bertan Alberto Catalan eta Miguel Sanzek esan zuten Gobernuak helegitea aztertuko duela epaien aurka, alderdien eta elkargoaren abokatuek berretsi dute ez dagoela horrelakorik. Amaia Ubieto Euskara Kultur Elkargoko abokatuaren hitzetan, epaileak foru legedian oinarritu dira, eta helegitea Espainiako Auzitegi Gorenean jar liteke baldin eta Espainiako araudian oinarrituta balitz. Orain, beraz, Nafarroako Gobernuak Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko luke 2000ko abenduko dekretua baliogabea dela, eta hemendik aurrerako neurri guztiek 1994ko dekretuaren arabera izan beharko lukete. Neurri murriztaileekin segitzeko prozesu osoa berriro abiatzea beste erremediorik ez luke izango Gobernuak. Hau da, aurreproiektua egin, eta behar diren erakunde guztien txostena eskatu. Eta Euskararen Kontseilua berrosatu.

zartea bizkortu eta dinamizatzeko elementuak ikusten dituztenak; beste aldean daude ezberdintasun horietan arazoak besterik ikusten ez dituztenak, eta uniformetasuna besterik nahi ez dutenak». Aierdirentzat, erabaki hauekin UPNk ez ezik, PSNk eta CDNk ere aukera berria dute «gizartearen eskaerari men egiteko».

Jose Miguel Nuin IUko kideak epaiak Nafarroako Gobernuarentzat «atzerapauso larri eta garrantzitsuak» direla nabarmendu zuen, eta bidean erabaki barregarri eta erridikuluak ere hartu direla gogoratu zuen.

Milagros Rubiok (Batzarre) forma arrazoiak ez ezik epaian oinarriari ere heltzen zaiola defenditu zuen, «epaitu delako politika egiteko modu bat». Kallean izaniko elkarretaratzen garrantzia ere azpimarratu zuen parlamentarioak: «Hor egon da gakoa».

Euskalgintzako hainbat talderen balorazioa gaur

Batasunak, bestalde, kritikatu zuen epaileek bakarrik forma arazoak aipatu izana, eta horrek «pozteko tarterik» ez duela eskaintzen adierazi zuen. «Ez dira forma arazoak, euskararen aurka daramate hizkuntza politika genozida baten inguruko arazoaz ari gara».

Euskalgintzako ordezkariak gaur emango dute prentsurrekoa bateratua Iruñean, bi epai hauek baloratzeko. Xabier Mendiguren Kontseiluko bozeramaileak, nolahi ere, atzo bertan aurreratu zuen, Gasteizen, «pozez» hartu dituztela bi erabakiak, eta garbi erakusten dutela Gobernuak jarraitutako bidea ez dela egokia izan.